

OHIKO GALDERAK –GRAL

1.-GRALaren matrikula derrigor egin behar da?

Parte hartu ahal izateko gaia eta tutorea esleitzeko prozesuan eta, ondoren GRALa defendatu ahal izateko, GRALaren matrikula egin behar duzu aldez aurretik.

Prestakuntza DUALeko ikasleek ez dute gaia eta tutorea esleitzeko prozesurik, baina GRALaren matrikula egin behar dute, inskribatu ahal izateko lanaren izenburua eta zuzendariaren izen-abizenak.

2.-Zeintzuk baldintza bete behar ditut matrikula egin ahal izateko?

Beharrezkoa da ikasketa-plana amaitzeko behar diren irakasgai guztiak matrikulatuta izatea, eta dagokion matrikula-epean egin beharko da.

3.-Zeintzuk baldintza bete behar ditut GRALa defendatua ahal izateko?

Gradu Amaierako Lana defendatu ahal izango da, baldin eta ikasleari gradua amaitzeko 12 ECTS nahitaezkoak edo tronkalak baino gehiago falta ez zaizkiola egiaztatzen bada, hautazko kredituak eta Gradu Amaierako Lanekoak kontuan hartu gabe.

4.-Noiz egin dezaket gradu amaierako lanaren matrikula?

Hirugarren maila amaitzen ari bazara bat epe daukazu uztaileko automatrikulan.

Laugarren mailan bazaude eta ez baduzu egin GRALaren matrikula aurten hurrengo ikasturteko automatrikula epean egin behar duzu.

Laugarren mailan bazaude, GRALaren matrikula egin baduzu eta, gainera, GRALa inskribatu baduzu eta lana amaitu, baina azkenean ezin izan baduzu defendatu ikasturte honetan, ezohiko matrikula egiteko epelabur bat irekiko dugu urrian.

5.-Zenbat ordaindu behar dut GRALa defendatzeko?

Sei kredituko irakasgai bati dagokion diru kopurua (beka eman badizute edota tasa osoa ordaindu behar ez baduzu familia ugaria izateagatik, desgaitasunen bat izateagatik, edo horretarako eskubidea ematen duen beste arrazoiren batengatik, kontuan hartuko damatrikula egiten duzunean).

6.-Nola jakinarazten dut zeri buruz egin nahi dudana GRALa? Eta nola esleitzen zait tutorea?

GRALak esleitzeko prozedurako 1. atalaren arabera, epe bat irekiko da idazkaritzan ikasleek GRALaren gairako dituzten lehentasunak adieraz ditzaten, oinarri hartuta graduan eskaintzen diren irakasgaiak. Tutorea sailek esleitu dute.

Prestakuntza dualean ari diren ikasleek ez dute parte hartu behar gaia eta tutorea esleitzeko prozesuan, prestakuntza dualeko tutorea bera izango baita GRALeko tutorea.

Esteka honetan daukazu azalduta nola esleitzen diren gaia eta tutorea: GRALak sailei esleitzeko prozedura

[GRALak sailei esleitzeko prozedura](#)

7.-Zenbat lan zuzendu behar ditu sail bakoitzak?

Sail bakoitzari dagokion GRAL kopurua kalkulatzeko, ehuneko hau erabiliko da: sail bakoitzak graduan ematen dituen irakasgaietako kreditu kopuruaren batura zati kreditu kopuru osoa (sail bakoitzari dagokion ehunekoaren taula ikusteko, joan 5. galderan agertzen den estekara).

8.-Nork izendatzen ditu lanen tutore izango diren irakasleak?

Sailek izendatu behar dituzte lanak zuzenduko dituzten irakasleak.

9.-Zein hizkuntzatan egin eta defendatu behar dut GRALa?

GRALa euskaraz zein gaztelaniaz egin dezakezu, graduan matrikulatuta egon zaren taldea dena delakoa izanda.

10.-Esan didate nork zuzenduko didan lana; orain zer egin behar dut?

Hamar eguneko epean harremanetan jarri beharko zara zuzendariarekin, zehazteko nola eramango duzun aurrera lana. Idazkaritzara ere joan behar zara, epe beraren barruan, lanaren izenburua inskribatzera (izenburua ez da finkoa, aldatzeko aukera izango duzu edozein unetan, defentsa egiteko eskaria aurkeztuko duzun egunaren bezperara arte), bai eta tutorea nor izango den jakinaraztera ere.

11.-Noiz jakingo dut zein egun eta ordutan izango dudan GRALaren defentsa?

Datuak behin grabatuta, sistemak automatikoki bidaliko dizu mezu elektroniko bat zure "ikasle" kontura.

OHARRA:"Ikasle" kontua erraz bete eta blokeatzen da eta, horrexegatik, komeni da erabilgarri izatea.Arazorik baduzu, jar zaitez harremanetan Erabiltzaileentzako Zerbitzuarekin: GIPUZKOATIK deitzen baduzu, 943.018600; BIZKAItik deitzen baduzu,946.014400; ARABAtik deitzen baduzu, 945.014400; edo bidali mezu bathelbide honetara: cau@ehu.eus.

Informazio hau webgunean ere argitaratuko da.

12.-Zenbat aukera dauzkat GRALa defendatzeko?

Gainerako irakasgaien kasuan bezala, bi aukera izango dituzu ikasturteko.

Bestalde, ikasturte guztietan defentsarako proposatzen diren hiru deialdietako edozein aukera dezakezu (urtarrila, ekaina eta iraila).

13.-Zer gertatzen da matrikula egin badut eta ikasturte honetan deialdi batean ere aurkezten ez banaiz?

Matrikula egiteko epea bat irekiko da urrian urtero (defentsak egiteko iraileko deialdia ebatzi ondoren), matrikula egin dezazuen hurrengo ikasturtean.

Azken aldaketa –Fakultateko batza 14-7-2020.